Oñatiko Bidaurreta, Gipuzkoako monumentu berezi bat

Bidaurretako Monastegia, Gipuzkoan lehenbiziko moja komentua, 1964tik probintzi mailako monumentua zena, aurtengo irailaren bostetik nazional mailako bihurtzen da, bere inguruko Franziskotarren Erresidentzia eta Olakua torretxearekin batean.

O-Hiruretatik edifiziorik zaharrena Olakua da, XV. mendearen lehen partean Peru Lopez de Lazarraga zenak eraikia nonbait eta bere lehen agiria 1442an bere seme Joani hilburukotzat uzten diona. Joan Lopez de Lazarraga, Errege Katolikoen kontadorea eta erreginaren albazeetariko bat izan zen. Bere handikitasunari zegokionez, bera eta bere senideak hobiratzeko kapera berezi bat eraiki nahi zuen San Migel parrokian, baina Oñatiko kondeak eragozpenak jarri zizkion nonbait eta horregatik erabaki zuen Bidaurreta torretxearen ondoan (orain Olakua bezala ezagutzen den dorrea bera bai zen Bidaurreta zeritzana) Monastegi bat eraikitzea. Inguruko ermitetan izaten ziren freirak deitu zituen eta 1510. urtean sortu zuen, klarisa komunitatearen barnean eta probisionalki torretxean bertan jarriaz.

Monastegia 1510 eta 1520. urteetan eraiki zen. Joan Lopez de Lazarraga sortzailea eta Joana de Gamboa bere emaztea, Monastegia bukatu baino lehen hil ziren eta beren gorpuak Olakuan hobiratu ziren, Monastegia bukatzean hona pasatzeko.

*Residentzia, Monastegiarekin batean eraiki zen, elizkizun zerbitzuetarako. Maria Comas-ek (1936) egin zuen estudioa behar beharrezkoa da Bidaurreta eta bere sortzaileen historia ezagutzeko. Monastegiaren arte balioez berriz M.A. Arrazolak Gipuzkoako Pizkunde arteaz burutu zuen lan nagusi hura eta geroago Oñatiri eskaini zion liburuxka. Iñaki Zumaldek ere, **Historia de Oñate** liburuan zenbait orrialde eskaintzen dizkio Bidaurretari.*

Eliza, Trinitateari eskainia, bere egituraz beranduko gotiko estiloduna da, eta kanpokaldera azaltzen diren zenbait leiho eta fatxadako apainduretan Pizkunde estiloa nabari da. Gainera, bi aldeetara Errege Katolikoen sinboloak du, eta bere sabaia, gotikoan ohi zen bezala, uztai gurutzatuz egina, beren giltzarrietan erregeen sortzaileen eta franziskotarren armarriekin. Aski laztasunez eraikia da.

Lehenago, Errege Katolikoen hirugarren armarri bat omen zuen elizaren atzekaldean, baina geroztik han ideki zen leiho bategatik kendu zuten, eta armarri horren harriak gaur egun Artzubi baserriko leiho bat apaintzeko jarraiak daude.

Elizako erretaula nagusia, beranduko barroko hoietakoa, Jacinto de Sierra fraileak egina da, XVIII. mendean. Lehengo erretaula zaharra, urte guti dela berriz jarri dute elizan (berria egin zenetik klausurako partean gordea bai zen), gurutzatzen den ezker alderdian. Hamaseigarren mendearen lehen partekoa da, "plateresco" deritzan estilokoa, Burgos-ko lantegietan egina. Oso lan ona, bai eskultura aldetik eta bai polikromia aldetik. Arte aldetik, dudarik gabe, elizak duen gauzarik baliagarriena.

Bai Monastegik eta bai Residentziak, beren kalostreak dituzte; adreiluz eginak dira gainera. Bietan eta Refektorioko sabaian mudejar erak agertzen dira. Behar bada gure probintzian lehenengo mudejar agiriak Loiola dorrearekin batean.

Gipuzkoako herrietan arte balioak inon zaindu badira, Oñatin zaindu dira. Hala ere, lastima izan zen Monastegia eta Olakua bitartean etxe berriak eraikitzea, Hiriko plangintzan, hor utzi behar zen pasealeku edo jolasleku zabal bat, hiru edifizioen ingurua errespetatuz, hauek historian elkarri loturik daudenez, etxe berriak kanpokalderuntza luzatuz. Hola garaiz jokatu bazen, etxe horietako biztanleentzat ere inguru atseginagoa lortuko zen. Baina, maiz gertatzen dena, joanak joan.

Oñati, bere Unibertsitate, San Migel parrokia, Udaletxea eta zenbait dorre zahar eta jauregikin Bidaurretako Monastegia barne dituela Gipuzkoako herririk atseginenetakoa dugu, bai arte aldetik eta bai paisaje aldetik. Zaharra berriztatze kontuan ordea, manposteriaz egindako horma batzuk berriz karez zuriturik utziko balira (hortarako eginak zirenez), herri eredugarria litzake. Eta, ezta guti esatea herri baten alde, probintzia guzian ezagutu ditugun disparateak ezagutu ondorean.

Juan SAN MARTIN

El Monasterio de Bidaurreta de Oñate constituye un monumento singular de Guipúzcoa. Estaba declarado monumento histórico artístico, de carácter provincial, desde 1964 y desde el 5 de setiembre del presente año queda incoado el expediente, junto con los edificios enejos casa-torre de Olakua y la Residencia de los Padres Franciscanos, para que se declare con rango nacional.

En sus raíces, el edificio básico, fue la casa-torre que hoy conocemos por Olakua, cuyo primitivo nombre era Bidaurreta y pertenecía a la familia de los Lazarraga. Una casa-torre gótica de comienzos del siglo XV, que su primer testimonio escrito aparece en 1442, en el testamento de Pero López de Lazarraga. Tenía otro edificio anexo que era molino y a primeros del siglo XVII se convirtió en ferrería. De ahí su nombre Olakua.

A Pedro López de Lazarraga le sucedió su hijo Juan, que se casó con una Gamboa y fue contador de los Reyes Católicos y uno de los albaceas de la Reina Isabel. Por su alta alcurnia parece ser que aspiró a levantar una capilla familiar en la parroquia de San Miguel, al que se opuso el señor conde de Oñate y fundó el Monasterio de Bidaurreta en 1510, instalando provisionalmente a la comunidad de monjas clarisas, hasta la construcción del Monasterio, en su casa-torre, que hoy conocemos por Olakua. Torre rectangular de dos plantas con la elevación de otra tercera de ladrillo Aún mantiene una puerta ojival y tres ventanas geminadas.

El Monasterio, con su Residencia aneja para los servicios del culto, se construyó entre los años 1510 y 1520. Durante ese espacio de tiempo fallecieron los fundadores que recibieron sepultura en la capilla de Olakua y luego pasarían al Monasterio. Primer convento de monjas de Guipúzcoa, pues hasta entonces sólo había beaterios.

El Monasterio de Bidaurreta es un edificio sencillo, austero, de estilo gótico en su estructura arquitectónica, presentando al exterior ventanas y fachadas renacentistas, con sabor isabelino. Su iglesia está dedicada a la Santísima Trinidad. Con planta de cruz latina, de una sola nave y bóveda de crucería, con escudos reales, de los fundadores y los franciscanos en sus calves. También en las fachadas aparecen escudos de los Reyes Católicos, los de Lazarra-Gamboa y de los PP. Franciscanos. Tenía un escudo más en el ábside, que se quitó al abrir una ventana y parte del mismo hoy, se conserva ornamentando la vertiente del caserío Artzubi.

La Residencia es del mismo estilo de transición del gótico al renacimiento, pero aún con más austeridad que el Monasterio. Ambos edificios poseen claustros de influencia mudéjar, estilo que aparece también acusado en los ornamentos del techo del Refectorio.

El retablo de la capilla mayor de la iglesia es barroco con elementos rococó, obra de Sierra, del s. XVIII. Es mucho más interesante el retablo primitivo, del que María Comas Ros se lamentaba el no poder usar para su estudio de tesis doctoral por encontrarse entonces en la parte clausurada. Hoy se encuentra en el brazo derecho del crucero de la iglesia, junto al sepulcro de los fundadores. Es obra de primeros del XVI, del más puro estilo plateresco, con talla fina y delicada. Procedente un taller de Burgos, al que encargaron los fundadores. Sobre el banco, donde se efigia el apostolado, en tres grupos) se historian, en relieves, escenas de la vida de María; el último cuerpo presenta la creación, el pecado de Adán y Eva, y está coronado con hermoso Calvario. Una profusión de conchas, balaustres, grutescos y demás elementos decorativos del primer renacimiento español. Una descripción más amplia la hallaremos en el opúsculo dedicado a María Asunción Arrázola dedicado a Oñate, y para la historia general del Monasterio es obra indispensable la de María Comas.

Organua euskalerrian

Amaituberria dugu VI. Organu Astea, aste zorionez luzea, bi asteko epe barruan bederetzi organu kontzertuak eman dizkigute gure organularietatik trebeenak Euskalerrian zehar eta. Igarotako mendean eraiki ziren organu erromantikoetan (Cavaille Col, Merklin, Stoltz Fréres, Walcker, Roqués, Dourte) hainbat sasoiko musika lanak entzun ditugu egunotan: XVII. gizaldikoak, Buxtehude, Scheidt, Pachelbel, Frescobaldi eta Bruna; XVIII.ekoak, Bach, Mozart, Telemann, Couperin, Ferreñac, Cabanillas; XIX.ekoak, Boely, Saint-Saens, Franck, Leffebure-Welly, Brahms eta gure Gorriti, eta azkenez, gure gizaldiko diren edo izan direnak, Dupré, Vierne, Messiaen, Alain, Fletcher eta euskaldunen artekoak, Urteaga, Mokoroa, Garmendia, Guridi, Donostia, Beobide, Martin Rodríguez, Madina, Escudero, Ibarrondo. Organu musika entzuteko aukera onenetarikoa izan dugu gure eleiz nagusietan. Eta entzuleak ugari izan direnez gero, ondore onekoa izan dela aste hau esan beharko dugu eta sarriago egitea eskatzen diegu Milheres, Elizondo, Azkuea, Ondarra, Etxebarria, Elizalde, Pildain, Ortiz de Jocano eta Ayarra organulariei baita antolatzaileei ere.

Sarritan esaten da gure musikaren agerkizun bereziak organua eta abesbatzak direla. Euskal musikuetatik ospetsuenak organulariak, organurako musikaegileak izan ditugu, eta gure euskal musiku guztiak abotsetarako musika egin dute. Hor ditugu eredutzat urten jaiotzako mendeurrena bete duten musikuak: Gabiola, Balerdi eta Otaño. Hirurak organulariak, organurako hainbat musika lan egin dituenak eta abotsetarako ere hainbat partitura laga digutenak. Euskal musika, egia esateko, organua eta abesbatzak kontuan hartu gabe ezin daiteke ulertu eta adieraztera eman. Melodikoa omen da gure musika herrikoia, baina euskaldunak harmoniarako ekarri berezi bat daukagula esaten da, eta melodia eta harmonia, biak batera, organuak eta koralak ematen digute.

Horregatik organua beti izan da premiazko eresgailua Euskalerrian. Hor dugu Iruineako Katedraleko irudietan agertzen den XIV. gizaldiko organu ekargaia, eta mende bereko paperetan azaltzen diren Portxin, Materna eta Prebostau organulariak. XV. gizaldiaren erdiruntz Polifonia garaia hasten da; baina nahiz eta abots hutzak garaile izan orduan, baditugu organuaren aztarnak ere.

Flandesetik ekarri zen 1507an Lezora organu berri bat, eta urte berean Martin Ibañez de Etxebarria aipatzen da Arrasateko organularia. Gero eta ugariagoak dira dokumentuetan orduko organu eta organularien aipamenak: Esteban de Miguel dugu 1516an Iruineako Katedralean organulari, eta Joannes Larrunbide 1520an Olarizungo eleizan. Tuterako katedraleko organua 1518an eraikitzen da eta hamar urte beranduago Balmasedakoa. Iratxeko eta Markinako organuak ere XVI. mendean eginak dira.

*Polifontaren beheraldiarekin heldu da organuaren garaia XVII eta XVIII. mendeetan. Bertoko organugileek betetzen dituzte Euskalerriko eleizak organu berriekin: Eizaga, Etxeberria, Telleria, Del Rio etabar dira orduko organuegileen deitura ezagutuak. Gerotxoago etorriko dira Garagalza, Monturne, Lizarralde eta beste organuegileak. Organularien artean asko dira garai hartan Euskalerriko organulariak eta denen artean aipatu behar direnak Frances de Iribarren, Oxinaga, Albero, Ferrer eta Murgia. XVIII. gizaldiko azken urteetan egiten du Iturrizak Bizkaiko organuen lehen Katalogoa eta gogoan daukat momentu honetan gure egunetako organuen Katalogoa egina dela Araban, Gipuzkoan eta Nafarroan ¿Noiz hasiko da Bizkaia lan berau egiten? Organularien Katalogo bat ere egin zuen Eslabak 1853ean, euskal organularien musika lanak pilaka emanaz. Ledesma, Meton, Santesteban, aita-semeak, Iñiguez, Gorriti, Arriola, Altuna, Aldalur etabar etabar izan ziren gure XIX. gizaldiko organularietatik trebeenak. Gure gizaldira iritsita, Otañoren **Antologia Moderna** (1909) ikustea baino ez dago euskal organu eskola berriren indarra neurtzeko. Baina gure egunetako organularien izenak ugariak dira eta hemen sartu ezinak. Behar bada, beste egun baterako uzten dut gai hau, aipagarria da eta.*

José Antonio ARANA MARTIJA

Ha terminado la VI Semana de Organo que felizmente nos ha dado nueve conciertos en un plazo más largo de dos semanas. Una selección de buenos organistas nos ha dado una buena muestra de composiciones de todas las épocas en los excelentes órganos montados en la época romántica del siglo pasado. En nuestras iglesias, basílicas y catedrales hemos podido disfrutar de audiciones que han reunido a muchos oyentes que atestiguan el éxito de esta larga semana y piden que estos conciertos sean más frecuentes.

Se suele decir a menudo que el órgano y los coros son los exponentes principales de nuestra música vasca. Los mejores de entre nuestros músicos han cultivado la música orgánica y la coral. Ahí tenemos como muestra a tres músicos vascos cuyo centenario estamos celebrando este año: Gabiola, Balerdi y Otaño. No puede entenderse ni exponerse la música vasca sin tener en cuenta el órgano y los coros. Pues si bien nuestra música popular es fundamentalmente melódica, los vascos tenemos una predisposición especial para la armonía y son el órgano y la música coral los que expresan esta doble faceta.

Por ello el órgano ha sido siempre un instrumento necesario en nuestro país. Ahí tenemos como muestra remota del siglo XIV el órgano portatil de la Catedral de Pamplona y en los documentos a los organistas Portxin, Materna y Prebostau del siglo XV en la capital navarra. Hacia mediados del siglo XV se inicia la época de la Polifonía, pero a pesar del triunfo de las voces, no se relega el órgano que se instala como instrumento en nuestras iglesias: en 1507 se traen órganos de Flandes a Lezo y ese mismo año se menciona en Mondragón a Martín Ibañez de Etxebarria como "buen secretario de órganos".

Esteban de Miguel aparece como organista de la Catedral de Pamplona en 1516 y Joannes Larrunbide como organista de Oyarzun en 1520. En 1518 se montan los órganos de Tudela y diez años después los de Balmaseda. De este siglo XV son también los órganos de Iratxe y de Marquina.

Pero con la decadencia de la polifonía llegará el verdadero auge del órgano. Durante los siglos XVII y XVIII. trabajan en nuestras tierras montando órganos nuevos los Ferneros Eizaga, Echebarria, Telleria, Del Río y después Garagalza, Monturne, Lizarralde y otros. Muchos los organistas de aquellos tiempos pero es imposible mencionarlos aquí. No podemos sin embargo olvidar a Francés de Iribarren, Oxinaga, Albero, Ferrer y Murgia. Por fines del siglo XVIII podemos decir que es Iturriza el que redacta un catálogo de órganos en Vizcaya, viene bien mencionar aquí que en Alava, Guipúzcoa y Navarra ya se ha hecho ya el Catálogo de los órganos actuales. ¿Cuándo se empezará esta catalogación en Vizcaya? El Catálogo, el de los organistas, lo hizo Eslaba en 1853 en su **Orgánico** donde recogió obras de muchos de nuestros organistas vascos. Y ya en el siglo XX en Larrea el que nos prepara en 1909 la **Antologia Moderna** donde se fija el nacimiento de la nueva escuela de órgano vasca. Pero quizá sea éste un tema que merezca un comentario posterior.